

Heriotza, kultura eta erlijioari (edo azken honen ezari) lotuta agertu zai-gun afera da. Munduan hemeretzi erlijio nagusi eta 4.200 sinismen talde ezberdin daudela adierazten dute hainbat ikerketek. Badi-rudi, beraz, erlijioak kultur erai-kuntzaren ondorio direla. Horrela, heriotza bizitzeko mo-duak oso desberdinak eta ani-tzak dira. Batzuentzat ez da exis-titzen, bizitza ez baita amaitzen, eraldatzen doan zerbait delako. Beste batzuek, ekidin beharreko zerbait bezala ulertzen dute. Erli-jioek onarpen prozesuan lagun-du dezakete, horregatik fedega-

horrek bizitza atxikitzaera bultza-tzen gaitu, heriotzaren onarpe-nerako oztopo bilakatu-z. Heriotzaren onarpen ezak, he-riotzarekin etengabeko borro-kan egotera eraman du Europa mendebaldeko jendartea. Ga-rrantzitsuagoa bilakatu da zen-bat bizi garen nola bizi garen baino. Hor kokatzen da Mende-baldean gero eta ohikoagoa den eutanasiaren auzia. Batzuentzat irtenbide duina eta burujabeta-sunaren ondorio kontsekuentea bada ere, erlijio kristauentzat le-ge naturalaren eta Jainkoaren hi-tzaren aurkako ekintza da. Jain-koak bizitzaren eta heriotzaren burujabetza absolutua omen duenez, suizidioarekin zein eu-

tanasiarekin norberak bere bu-ruarekiko amodio eza erakusten omen du. Mendebaldeko medi-kuntza ere gaixoaren bizitza lu-zatzera bideratua dago, baita gai-xoaren eritasuna sendaezina denean ere. Dolua beltzez egiten da, urruti dagoen kanposantu batean lore-ak jartzen zaizkielarik zulo bate-an sartuta dauden hildakoei. He-riotzari beldurra zaiolako heriotza ez da ikusgarria. Epicu-ro greziarrak, ordea, «ez eduki beldurra heriotzari eta ez diozu bizitzari beldurrik edukiko» esa-ten zuen. Horrekin eztabaida bat irekitzen da, batzuek uste baitu-te beldur horrekin jokatu izan dutela kristau instituzioek kon-

trol soziala ezartzeko, zer dagoen ongi eta zer gaizki esanez, dok-trina zehatz bat eta bizitza estilo bat ezarriz. Kristautasunarekin kritiko direnek jendartea aske ez izatera eraman dezakeela diote, izan ere, heriotzaren mamua as-tinduz bizitzaren jarduna bal-dintzatzen du.

Varanasin Ganges ibaiaren ertzean gorpu-tzen errausketa ikus dezakete bertaratzen direnek. Indiako Va-ranasi hiri hinduistara erlijio ho-rrren jarraitzaile asko joaten dira hiltzera zein bere gertukoei no-labaiteko agurra ematera. Hin-duistek uste dutenez, *mokhsa*

{ analisia } **Uberka Bravo**

Bizitza, heriotzaren ataria

beek zailtasun handiagoak eduki ditzakete heriotza asimilatze-ko garaian.

Mendebaldean «Horrela, gizon bakar baten bi-tartez sartu zen bekatua mundu-ra, eta bekatuarekin heriotza» (Errom 5, 12). Horregatik, «beka-tuaren ordaina da heriotza» (Errom 6, 23). Itun Berritik ateratako pasarte horrek heriotza bide okerraren ondorio bezala kokatzen du. He-riotza zerbait negatiboa da. Egia da, kristau erlijioak, Jesukristo-rengan sinetsiz gero bekatueta-tik askatzeko aukera ematen duela eta bide batez salbazioa-ren bitartez betirako bizitza es-kuratzea posiblea dela. Egun, or-dea, kristau jendartean zaila da hori sinisten duen inor topatzea. Gurean, tradizio judeokristaua nagusi bada ere, sistema kapita-listaren pean egoteak heriotza ulertzeko modu materialistan izugarrizko eragina izan du. Ma-terialismoak jabetzaren ideia erro-tu du gure jendartean eta

Liburu dendetan jaio berriei buruzko idatzi asko topatuko ditugu. Aldiz, bizitzaren lehenengo urratsak ez, baizik eta azkenekoak jorratzen dituzten liburuak topatzea askoz ere zailagoa izaten da.

edo etengabeko berraragiztatze-an murgildurik gaude eta ziklo horretatik askatzeko joaten dira Gangesen hiltzera. Ibai sakratu horretan hiltzen zarenean berra-ragiztatze prozesutik askatzen zara (*samsara*). Beraz, heriotza askapen prozesu bezala ulertzen da. Erritual horrek heriotza era-bat agerikoa egiten du bertaratu-tako ororentzat. Emakume hin-duistak, ordea, ezin dira bertan egon, soilik errituala hasi aurre-ko uneetan izateko baimena du-te. Errausketak irauten duen bi-tartean inork ez du malkorik isurtzen, eta, antza denez, oso modu naturalean ikusten dituz-te gorputzak erretzen bizpahiru ordut. Beraientzat heriotza mo-du fisikoan ematen da soilik eta gertaera hori ez zaie zorigaizto-koa suertatzen. Indiako jendartea kastetan sailkatua dago eta hori heriotza-ren orduan ere islatzen da. Gan-ges erriberako eremu altuenak kasta inportanteentzat gorde-tzen dira, eta, behekoak, aldiz, kasta umilentzat. Bakoitzaren egoera sozial zein ekonomikoa

azken hatsa bota arte dira aldaezinak. Hurrengo berraragiztatzeraz itxaron beharra dute hinduistek kasta posizioan igo nahi izanez gero. Behin gorpuzta errauts bihurtuta, errautsak ibaian botako dituzte, errituala amaituz.

Fedegabetasunean

Heriotzaren aurrean ez dira erantzun errazekin aurkitzen Jainkoarengan sinisten ez dutenak. Erlijioetan ez bezala, ez dago ez erreferente nagusirik ez eta jarraitzeko dogmarik ere. Egungo garaiotan jendartearen segurtasun bila dabilela dirudi eta erlijioek babesgune papera joka dezakete. Ateoa zein ez-erlijiosoen kopuruek, ordea, gora egin dutela diote egindako neurketa ezberdinek. Eredu sozialistak aldarrikatu dituzten hainbat herrialdetan zein eredu kapitalista jarraitu dutenetan ere eman dira fedegabeen igoera nabarmenak. Txina, Japonia, Txekiar Errepublika, Frantzia eta Islandia ditugu he-



rrialde laikoen lidergoan gaur
egun.

Ateoek Jainkoaren existentzia ukatzen dute eta mundua zein bizitza mugatua dela esaten dute. Erlijioek, bakoitzak duen ardura alde batera uzten duela salatzen dute. Indibidualismoa indartzen ari den garaiotan, komunitate ezak baliabide oso eskasekin uzten du pertsona heriotzaren aurrean. Horri fedegabeentzat eta ateoentzat errealitatea bereziki gordina dela ere gehitu beharko genioke, ez baitago ezer norbanakoa heriotzatik salbatuko duenik, ez dago horretan esperantzarik. Alabaina, eguneroko bizitza indarberriturik etor daiteke, heriotzaren kontzientzia edukitzeak eguneroko bizitza askoz gehiago baloratzea eta aprobetxatzea eraman dezakeelako.

**Goiko irudian, Maoren
mausoleoaren sarrera,
Pekinen. Behekoan, Bilboko
kanposantu bat.**
GAUR8
J. HERNAEZ | ARGAZKI PRESS

